

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 745/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, izendatzen dituen aldundi honek "Zerga iruzurraren aurkako batzordea"n eta "Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenak eta erkidegoko erakundeen finantzazioa aztertzeke lan taldea"n izango dituen ordezkariak

Diputatuen Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da zenbait erakundetan Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkari-tza izendatzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Gonzalo López-Huerta Martínez de Aragón izendatzea Arabako Foru Aldundiaren ordezkari ordezkotzat lruzur fiskalaren kontrako borrokarako batzordean (Foru Administrazioaren parte hartzea duten erakundeen erregistroko 369 zenbakia).

Bigarrena: Jose Luis Guezuraga López eta Tomás Alonso Sanz izendatzea Arabako Foru Aldundiaren ordezkari ordezkotzat Eskumen propioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde mailen finantzaketa aztertzeke lantaldean (Foru Administrazioaren parte hartzea duten erakundeen erregistroko 370 zenbakia).

Hirugarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN